

ARALARKO SAN MIGEL ELIZAKO ERRETAULA

Aralarko San Migelen zegoen erretablea, gauza bitxia eta bakarra zen munduan. XII. mendean esmaltez egina, arte aldetik neurtu ezindako balioa zuena, sineskaitz egiten zait lapurtua izan dela jakitea.

Gertari honek utzi digun hutsunea, ez artez eta ez diruz bete ezinezko da. Izan ere, besterik ezlakoa zen Aralarko erretablea. Berari zerbait hurbiltzen zen bakarra Silos-ko Santo Domingon zegoen, gaur egun Burgos-ko museoan gordetzen dena. Baina, hau ezta hain aberatsa, ez edergarri eta ezta ere esmaltezeko tekniken aldetik.

Askori harrigarria iduritu zaie holako gauza baliozkoa Aralar mendian egotea. Baina kontu izan Aralarko San Migelen debozioa aintzina aintzinatik zabaldua dagola Euskal Herrietan eta Nafarroako erregeak oso maite izan zutela.

Herriagan bere aldeko joera aspaldiko mendeetan galtzen zaigu. San Migelen debozioa bera ere aintzinako bazaigu, bertako erlijiozko erroak, mendeetan ez ezik kristautasuna baino lehenagokoa izan daiteke.

San Migel eta piztiaren kondairak Italiako hegoaldean Manfredonia hiritik hurbil dagoen Gárgano mendian ditu sustraiak. Han ba omen zen Erdi-aroaren behe partean Garganus zeritzan gizon bat leza zulo baten atarian zezen baten aurrez aurre ikusi zena eta mirakuluz salbatua. Leku askotara zabaldu zen kondaira hura eta Teodosio Goinirena ere hortik dator nonbait. Dena dela, gaur Barcelona-ko museoan dugun Nafarroako Egilior deritzan herri-tik eraman zuten pintura batean agertzen zaigu kondaira honen ageri zaharra.

Aintzinatik hain beneragarria dugun Aralarko San Migelen, kristautasuna baino lehenagoko erlijio aztarnak ere badira. J. M. Satrustegik "Reminiscencias de culto precristiano en la devoción a San Miguel" deritzan lanean aditzera eman zigunez (ikus *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*-ren 6. zenbakian, 287-294 orrialdeetan).

Aralarko San Migelen eliza bera, erromanikoa izanarren, J. E. Uranga eta F. Iñiguez Almech-en *Arte medieval Navarro*-ren bigarren tomoko II. kapituluan aditzera ematen denez, egin dituzten ikerketen arabera, Santxo Nagusiaren garaian eraiki zen lehenagoko eliza prerromanikoaren zimentarrien gainean. Aipatutako liburuaren 54. orrialdean marrazkiz adierazia dator.

Baina, arestian esan bezala, eliza hortako arterik baliagarriena, munduan bakarra, esmaltedun erretaula izan da. Jatorriz, behar bada, aldara izango zen, baina XVIII. mendean egin zioten konponketa desegokia geroztik erretaulatzat ezagutu da.

Aipatutako obra horren hirugarren tomoan Uranga eta Iñiguez Almech-ek diotenez, Nafarroan ez ezik munduko artearen gailurrean zegoen obra hau, bere estilo eta teknikaren aldetik. Metro bat eta hamalau zentimetro zituen alturaz eta bi metro luzez. Gutxi bezala eztabaidatua izan da noizko eta nongotasuna. Gehienek Limoges-kotzat jotzen zuten.

Erretaularen inguru guztia urreztatua zuen eta gubilez landare hostoz jantzia, esmalteak ordea berde-urdinkaraz betea, zenbait ikutu beltzez, zuriz, horiz eta gorriz, eta ez bakarrik tinta plan eta soilez esmalteetan gehienez ohi den bezala, baizik tartezko kolore tonuak ere erabiliz. Honegatik, teknika hoietan erabili zitekeen kalitaterik hoberenetakoa zen. Kobrezko txapan kolore bakoitzarentzat azpilduraz lekua ideki eta hura esmaltez beteaz, kobreak lerro bat azalean utziz, koloreak banatzez gainera metalarekin soinekoen pliegeak hobeto markatzeko. Honela, irudientzat egokitasuna lortuz eta azal guztia txukun leunduta; azken urreztatze lana suaren bidez eginaz.

Erdi erdian Jesus haurra tinko aurrez aurre Amaren altzoan, koroez eta atzekaldetik argikoroa duela; kanpokaldeko lau aldeetatik Tetramorfos-aren sinboluak. Alde batera hiru erregeak eta heuren gainean beste hiru apostolu; bestaldera Deikundea eta errege bat (antza denez, Nafarroako García Ramírez, 1136. urtean

eliza konsagratu zuena, emaile gisa), eta hauen gainekaldean beste hiru apostolu. Irudi guzietan buruak errepujatuak eta zizelez landuak. Erretaularen erdialdeko gaina leundutako harri gogorrez horniturik eta erdian gurutze bat, hauen aldamenetan beste lau irudi, txikiagoak eta orainarte ezezagunak. Gero, gainekalde berean, alde batetik bestera botoi biribilduak bezala esmaltezeko dominak, oso apain landuak, irudi eta filigranaz nahasirik.

Esmaltzeko artearen teknikak ezagutzen dituenarentzat amesetako gauza zen.

Gaur egun seguritateko asmatuak diren tresna-gailuak dauzelarik, nola zitekean hain libre utzia egotea? Ulertu ezinezkoa zait erretaula hori lapurtu dutela jakitea.

J. SAN MARTIN

